



Ezagutzaren Zentroa

Ikerketa Soziala

Ikerketarako eta beste lankidetzak batzuetarako aholkularitza metodologikoa – Zerbitzuaren kalitatearen eta asebetetzearen azterketak – programen ebaluazioa – Merkatu-azterketak – Baliabideen mapak – Errealitatearen diagnostikoak eta beharrak detektatzea – Interes orokorreko azterketa sozialak.

Aurkezpena

Ezagutzaren Zentroa EDE Fundazioaren gunea da, **esku-hartze sozialaren** eremuan **dokumentazioa eta informazioa kudeatzen eta tratatzen** eta **ikerketa sozialak** egiten espezializatutako ezagutza sustatzea da gunearen helburua. Zentroan ikerketara bideratutako proiektuak, zerbitzuak eta sistemak sustatzen eta garatzen ditugu. Izaera aplikatuko gogoeta-prozesuak eta azterketak, informazioaren erabilera eta tratamendua, ekoizpena, behaketa-mapak eta beste ekimen berritzaile batzuk egiten ditugu, guztiak informazioarekin lotuta, esku-hartze sozialaren eremuan erakundeen ezagutza sortzen eta sistematizatzen laguntzeko, eta gure ingurunean garapen soziala, kulturala eta hezkuntza arlokoa garatzea ahalbidetuz.

Esku-hartze soziala gizartea eraikitzeko zentzu zabalean ulertzen dugu Zentroan. Ikuspegi horretatik, ezagutza hobetzen saiatzen gara, inguruneari buruzko informazioa emanaz, horretarako informazioa sortuz gure zerbitzuetatik, eraldaketa soziala lortu nahi duten erakundeen barruan garapena sustatuz eta transferituz eta, beste arlo batzuen artean, gizarte-ongizatearen, gizarteratzearen, justizia sozialaren, hezkuntzaren, kulturaren eta giza eskubideen alde lan egiten duten erakundeen barruan. Zentro gisa, honakoak ditugu:

- Konpromiso maila altua errealitatearen ezagutzarekin eta haren transmisioarekin.
- Inplikazio maila altua zerbitzua eskaintzen diegun eta lankidetzan jarduten dugun erakundeen helburu sozialarekin.
- Gure jarduera-eremuan garatutako praktika berritzaileen ezagutza zabala.
- Gizarte-azterketarako gaitasuna.
- Ingurune eta bezero desberdinetako errealitatera egokitu daitezkeen lan-metodologia propioak.
- Diziplina anitzeko ekipo teknikoa, ikertzaile, dokumentalista eta aholkulariz osatuta; taldearen bereizgarria konpromiso sozial eta gaitasun profesional altua izatea da.
- Pertsona eta erakunde adituekin sarean lan egitea

Hartzaileak

Gure hartzaileak Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldean esku-hartze sozialaren eremuan esku hartzen duten erakunde eta pertsona interesdun guztiak dira. irabazi-asmorik gabeko erakundeak, Hirugarren Sektoreko bigarren eta hirugarren mailako erakunde eta sareak, administrazio publikoak, enpresak, eta beste erakunde eta talde sozial batzuk. Eragileen arteko lankidetzeta-ikuspegia dugunez, beste lurralde batzuetan parte hartzeko aukera dugu, tokiko eta mundu mailako ikuspegi zabalagoa eskainiz, eta gure proposamenei balio erantsia ematen die horrek.

Gure hartzaileek zer lortzea nahi dugu?


- Jaso informazio sistematizatua, eguneratua eta garrantzitsua zuen jarduera-eremuei eta inguruneari buruz, oro har.
- Hobetu ikertu beharreko arlo sozialari, arazo sozialei eta etorkizuneko joerei buruzko zuen ezagutza.
- Hobetu zuen barne- eta kanpo-prozesuak informazioaren eta ezagutzaren kudeaketari dagokionez.
- Indartu zuen erakundea eta hazi entitate gisa.

Zer eman nahi diogu gizarteari?

- Ezagutzatik balio erantsia ematea esku-hartze sozialerako.
- Gizarteari inguruneari buruzko ezagutza handiagoa ematea, egiazkoa eta alderatua, informazioa erabaki eta ekintza bihurtzeko baliabide gisa.
- Sortutako ezagutza gizarteari ematea, egitura eta kultura mailako eraldaketa horretan laguntzeko eta gizarte bidezkoagoa eta solidarioagoa eraikitzeko.
- Gardentasuna, sortutako ezagutza gizartearekin partekatzeko gure jarreraren bidez.
- Hirugarren Sektorearen lana eta balioa eraldaketa sozialeko eragile gisa ikustea.

Nola egiten dugu?

Bi lan-eremu handiren bidez egiten dugu:



Non gaude?

Ezagutzaren Zentroko arduradunak

Pedro Beitia -
pbeitia@fundacionede.org

Ainara Canto -
acanto@fundacionede.org

Ikerketa Sozialeko zerbitzuaren koordinatzailea

Ainara Canto -
acanto@fundacionede.org

Ikerketa Sozialeko zerbitzuaren kokapena

Simón Bolívar kalea, 8-b
48010 Bilbo
Tel: 94 400 99 99

gizaikerketak@fundacionede.org
acanto@fundacionede.org
www.fundacionede.org

IKERKETA SOZIALA

Zer eskaintzen dugu ikerketa sozialaren zerbitzutik?

Ikerketa sozialari esker errealitatearekin harremana izaten dugu, hobeto ezagutzeko, eta helburu **praktikoa** du. Gizartean bizitzeko galdera garrantzitsuei erantzuna ematen dien neurrian, hobeto bizitzen laguntzen du, gizarteak aurrera egin dezan, erakunde eta zerbitzuek hobeto funtziona dezaten, herritarrok errealitateaz gehiago jabe gaitezen eta abar.

Ikerketa Sozialeko Zerbitzutik ezagutzearen garrantzia indartzearen alde egiten dugu, **plangintza eta berrikuntzako** funtzioekin ikerketak batzeko Ikerketaren bidez **eraldaketa sozialera** bideratutako **ezagutza sortzen** dugu, aplikazio-helburua duten azterketak garatuz; horietan, azterketaren xede, eta azken batean hartzaile, diren pertsonen eta erakundeen partaidetzari garrantzi berezia ematen zaie.

Informazio-bilketa eta haren analisia bezero bakoitzaren esku jartzen dugu, lana hobeto egin dezan eta bere helburu soziala lortzen **laguntzeko**. Ikerketak behar bezala jarduteko aukera eskaintzen die, ezagutza objektiboak sortzen duen **konfiantzarekin**.

Zer dugu bereizgarri?

- Gure bezeroekin harreman **pertsonalizatua** dugu, eta aholkularitza bermatzeko aukera ematen digu horrek.
- **“Ad-hoc”** ikerketak diseinatzen ditugu, gure bezeroen beharretara egokituta.
- Ikerketen emaitzak bezeroentzako orientabide **erabilgarri** bihurtzen ditugu.
- Informazioa edo materiala **isilpean** lantzen dugu, agindutako ikerketarako beste helburuetarako ez dela erabiliko bermatuz.
- Gure ekintzaren hartzaileekiko **errespetuz** eta **konpromisoz** lan egiten dugu.
- Arrazoizko kostuetan **kalitateko** zerbitzuak eskaintzen ditugu.
- Ikerketa sozialean **ibilbide** luzea duten soziologoaren talde profesionala dugu, eta teknika kuantitatiboak nahiz kualitatiboak aplikatzeko prest gaude.

- Lanerako diziplina anitzeko talde bat dugu ikertzailez eta dokumentalistaz osatuta. Horri esker, dokumentu-materialaren, joeren, ikerketen **berri** izaten dugu.
- **Sarean** lan egiten dugu beste erakunde batzuekin, eta haiekin ezagutza partekatzen dugu. Horri esker, komunitatean sortzen diren joera kritikoetan egunean egoten gara eta azter daitezkeen behar sozialei **aurrea har** diezaiekegu.
- Azterketak sustatzen, **esku-hartze sozialaren** eremuekin lotutako gogoeta-prozesuetan eta analisisetan espezializatuta gaude. EDE Fundazioak arlo horretan 30 urte baino gehiagoko esperientzia du: ekintza soziala, emakumea, adinekoak, haurtzaroa eta gaztaroa, immigrazioa, borondatezko lankidetzak, Hirugarren Sektorea, kultura, bakerako hezkuntza, ingurumena, eremu soziosanitarioa, sozioedukazioa eta abar.

Zer ikerketa mota egiten dugu?

Ikerketa sozial aplikatua egiten dugu. Lortzen diren ezagutzak aplikatzea edo erabiltzea lortu nahi izatea da horren bereizgarria. Gure jardueran, izaera gogoetatsua, sistematikoa eta metodikoa duten arazoen irtenbide edo ezagutzen bilaketa egiten dugu, nahita. Prozesu horren bidez, informazio garrantzitsua eta fidagarria lortzen dugu, eta ulertzeko, egiaztatzeko, zuzentzeko... baliagarri zaigu.

Metodoa (**kuantitatiboa edo kualitatiboa**) ikerketa horretan egin beharreko bidea da, eta informazioa biltzeko teknikak (**behaketa, sakontasunean elkarrizketatzea, galdetegia, edukiaren analisia, eztabaida-taldeak...**) bide hori egiteko modua zehazten dute. Gure ikerketa bakoitzaren diseinuan aurrez ezarritako helburuak lortzeko konbinazio egokiena ezartzen dugu, eskuragarri ditugun bitarteko eta baliabideetara egokituz.

Ikerketa Sozialaren ikuspegia

Aztertu egiten dugu

Deskribatu egiten dugu

Azaldu egiten dugu

Analisian hartutako ikuspegiaren arabera: **Aztertu egiten dugu** –arazora hurbildu eta haren ikerketa lantzeko gakoak bilatzen saiatzen gara-; **Deskribatu egiten dugu** –kolektibo edo egoeraren ezaugarriak aipatzen ditugu-; edo **Azaldu egiten dugu** –gertakarien eta egoeren arteko lotura aztertzen dugu, aztertzen ari garen errealitatearen zergatiak bilatuz-.

Zerbitzuen katalogoa

1. Ikerketarako eta beste lankidetzak batzuetarako aholkularitza metodologikoa

2. Zerbitzuaren kalitatearen eta asebetetzearen azterketak

3. Programen ebaluazioa

4. Merkatu-azterketak

5. Baliabideen mapak

6. Errealitatearen diagnostikoak eta beharrak detektatzea

7. Interes orokorreko azterketa sozialak

1. IKERKETARAKO ETA BESTE LANKIDETZA BATZUETARAKO AHOLKULARITZA METODOLOGIKOA

Beste erakunde batzuek zuzendutako ikerketa sozialeko proiektuetan parte hartzen dugu, hainbat prozesu partzial gure gain hartuz, hala nola: proiektuaren egokitzapen- eta bideragarritasun-azterketa; ikerketaren diseinua; laguntza-deialdietara proiektua aurkezten laguntzea; informazio-bilketako tresnak egitea; landa-lana; estatistika-datuak ustiatzea; bigarren mailako iturrien analisia; emaitzen argitalpena eta hedapena eta abar.

2. ZERBITZUAREN KALITATEAREN ETA ASEBETETZEAREN AZTERKETAK

Kolektibo baten asebetetzea neurtzen dugu (ordaindutako pertsonala, borondatezko langileak, erabiltzaileak, emaileak...), gai batekin lotuta, hobekuntza arloak detektatzeko eta zerbitzuaren jarduera bideratuko duten proposamenak ezartzeko.

3. PROGRAMEN EBALUAZIOA

Programa batek (emaitzek) helburu-kolektiboan duen eraginaren maila neurtzen dugu, baita horren eboluzioa eta azterketa prospektiboa ere, betiere, esku-hartzeko eta prebentzioko prozesuak hobetzeko oinarriak ezartzeko asmoz.

4. MERKATU AZTERKETAK

Populazioaren sektore baterako ekipamendu edo zerbitzu jakin baten bideragarritasuna aztertu dugu eremu geografiko jakin batean, haren beharra aztertzeko. Eragina duten joerak identifikatu ditugu, hartzaileen beharrak ebaluatu ditugu, proiektuak garatzen dituzten edo antzeko zerbitzuak ematen dituzten erakundeak aztertu ditugu.

5. BALIABIDEEN MAPA

Baliabideen eskaintza jakin baterako (hartzaileen, eragin-eremuaren, eskaintzaren erakunde arduradunen eta abarren arabera) hurbilketa egiten dugu, informazio zehaztua, sailkatua, eta oro har, baliabideen kokapena biltzen duen informazioa lortzeko asmoz. Oso erabilgarria da hutsuneak identifikatzeko eta jarduera-programa jakinak egitea motibatuzko.

6. ERREALITATEAREN DIAGNOSTIKOAK ETA BEHARRAK DETEKTATZEA

Lurralde-esparru eta denbora-tarte orokor batean edo arlo jakin baten inguruan kolektibo jakin baten, erakunde jakin baten edo sektore jakin baten egoera deskribatzen dugu, Geroago jarduera-plan bat egiteko orientabide gisa balio dezake, edo erakundeen jarduera berrantolatzeke prozesuei edukia eman diezaieke. Erantzuteke dauden gaiak ezagutzen hasteko aukera ematen duen neurrian, egungo beharrei erantzunak egokitzeko modu onena zehazteko aukera ematen du.














7. INTERES OROKORREKO AZTERKETA SOZIALAK













Errealitate sozial jakin batean eragiten duten gertakariak deskribatu, aztertu eta interpretatzen ditugu. Azterketaren helburua arazo sozial bat izaten da beti, garaiko jakin-min edo interesen ondoriozkoa. Interesgarria izaten da haren erabilgarritasun praktiko edo teorikoagatik, presazkotasunagatik, eragiten dien pertsona kopuruagatik... Zalantzak argitzeko errealitate jakinari buruz sakontzeko bideratzen da edo puntu ezezagunen bat argitzeko; beraz, informazio kritikoa ematen du, bereziki garrantzitsua gaur egungo gizartean, etengabe aldatzen ari baita.

Lan egin dugun bezeroetako batzuk

Euskadiko Zeliakoen Elkartea	Bilbao Bizkaia Kutxa	Manuel Calvo Fundazioa
Idatzi-Irakurri Elkartea	Euskadiko Langile Komisioen Sindikatuen Konfederazioa	Gizardatz
Gorabide Elkartea	Bizkaiko Foru Aldundia	Elizbarrutiko Teologia eta Pastoraliza Institutua
Arrigorriagako Udala	Gipuzkoako Foru Aldundia	GUFE- Gizarte Urgazpenerako Foru Institutua
Azkoitiko Udala	EAPN	Lea Artibaiko Mankomunitatea
Basauriko Udala	Emakunde	Busturialdeko gizarte-zerbitzuen mankomunitatea
Bermeoko Udala	Euskarri Kooperatiba Elkartea	Gizarte Zerbitzu Integratuak
Bilboko Udala	Eusko Jaurlaritza	SIIS
Durangoko Udala	Amalur Fundazioa	Sortarazi
Leioako Udala	Fundación Centro de Promoción de la Mujer de Bizkaia Fundazioa	Tubos Reunidos
Urduñako Udala	Lagungo Fundazioa	CEAR-EUSKADI
Santurtziko Udala	Luis Vives Fundazioa	

Gure ikerketateko batzuetarako sarbidea

- FUNDACIÓN EDE. SERVICIO DE INVESTIGACIÓN SOCIAL (2002). El Tiempo Libre Educativo en Bizkaia. 86 p. 
- GOBIERNO VASCO (2002). Educación para la convivencia y la paz en el ámbito de la educación no formal en la CAPV. 161 p. 
- BOLUNTA (2004). Estudio sobre el voluntariado en Bizkaia. 196 p. 
- FUNDACION EDE. SERVICIO DE INVESTIGACIÓN SOCIAL (2004). Los procesos de exclusión social de las mujeres solas en la CAPV. 326 p. 
- BOLUNTA (2005). Evolución del asociacionismo en Bizkaia. 74p. 
- GOBIERNO VASCO. DIRECCIÓN DE BIENESTAR SOCIAL (2005). Evaluación del proceso de implementación del Plan Vasco de Voluntariado y análisis del Plan Estatal y otros planes de voluntariado autonómicos.143 p. 
- GOBIERNO VASCO. DIRECCIÓN DE BIENETAR SOCIAL. CONSEJO VASCO DE VOLUNTARIADO (2005). El voluntariado Vasco. Análisis de un compromiso. 133p. 
- FUNDACIÓN EDE. SERVICIO DE INVESTIGACIÓN SOCIAL (2006). Estudio para el diseño de un sistema integral de apoyo a personas cuidadoras de mayores en el municipio de Bilbao. 258 p. 
- GOBIERNO VASCO. DIRECCIÓN DE DERECHOS HUMANOS (2006). Estudio de referencia en materia de Educación para la Paz y Derechos Humanos en la CAPV. 64 p. 
- GOBIERNO VASCO. DIRECCIÓN DE DERECHOS HUMANOS (2007). Informe sobre buenas prácticas en materia de Paz y Derechos Humanos en materia de Paz y Derechos Humanos en la CAPV. 168 p. 
- DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA (2008). Informe sobre el voluntariado en Bizkaia. 132 p. 
- FUNDACIÓN EDE. SERVICIO DE INVESTIGACIÓN SOCIAL (2008). Estudio sobre las posibilidades de incorporación de las personas usuarias de las entidades sin ánimo de lucro para la realización de actividades de voluntariado. 253 p. 
- FUNDACIÓN EDE. SERVICIO DE INVESIGACIÓN SOCIAL (2008). Familias inmigrantes asentadas en la CAPV: los caminos hacia la integración. 63 p. 

- GOBIERNO VASCO. DIRECCIÓN DE PARTICIPACIÓN SOCIAL (2008). Hacia un Plan Integral de Participación Social de las personas mayores. Diagnóstico de la situación de las personas mayores en la CAPV. 51 p. 
- ARATEKO. DEFENSORÍA PARA LA INFANCIA Y LA ADOLESCENCIA (2009). El estudio sobre la situación de la infancia y la adolescencia desde la perspectiva de sus derechos y la calidad de vida en la CAPV. 474 p. 
- FUNDACIÓN EDE. SERVICIO DE INVESTIGACIÓN SOCIAL (2008-2009). Envejecer con éxito: prevenir la dependencia. 119 p. 
- FUNDACIÓN EDE. SERVICIO DE INVESTIGACIÓN SOCIAL (2009). Análisis de los anuncios televisivos de las campañas de prevención de drogodependencias y su incidencia en la población adolescente y juvenil. 157 p. 
- GOBIERNO VASCO. DIRECCIÓN DE BIENESTAR SOCIAL. CONSEJO VASCO DE VOLUNTARIADO (2003-2009). Informe sobre la situación del voluntariado en la CAPV. 73 p. 
- GOBIERNO VASCO. DIRECCIÓN DE JUVENTUD (2010). Mapa de Recursos de Ocio y Tiempo Libre en periodo vacacional en la CAPV. 97 p. 
- GOBIERNO VASCO. DIRECCIÓN DE POLÍTICA FAMILIAR Y COMUNITARIA (2010). Aproximación a las necesidades y demandas de la infancia y la adolescencia en la CAPV. 227 p. 
- FUNDACIÓN EDE. SERVICIO DE INVESTIGACIÓN SOCIAL (2011). La variable edad en la intervención con las mujeres víctimas de la violencia de género. 79p. 
- FUNDACIÓN EDE. SERVICIO DE INVESTIGACIÓN SOCIAL (2011). Relaciones de solidaridad entre inmigrantes: acercamiento a las redes informales de apoyo a menores y jóvenes no acompañados en la CAPV. 181 p. 
- FUNDACIÓN EDE. SERVICIO DE INVESTIGACIÓN SOCIAL (2011). Un acercamiento a los procesos de inserción sociolaboral de personas extoxicómanas. 216 p. 
- GOBIERNO VASCO. DIRECCIÓN DE POLÍTICA FAMILIAR Y COMUNITARIA (2011). Sistema de indicadores para el seguimiento de la realidad de la infancia y la adolescencia en la CAPV. 192 p. 
- FUNDACIÓN EDE. BAKEOLA (2008). Efecto de los juegos cooperativos en la creatividad para la resolución de conflictos. 146 p. 

Esperientzien bankua

1. Ikerketarako eta beste lankidetzak batzuetarako aholkularitza metodologikoa

Beste erakunde batzuek zuzendutako ikerketa sozialeko proiektuetan parte hartzen dugu, hainbat prozesu partzial gure gain hartuz, hala nola: proiektuaren egokitzapen- eta bideragarritasun-azterketa; ikerketaren diseinua; laguntza-deialdiak proiektua aurkezten laguntzea; informazio-bilketako tresnak egitea; landa-lana; estatistika-datuak ustiatzea; bigarren mailako iturrien analisia; emaitzen argitalpena eta hedapena eta abar.

2. Zerbitzuaren kalitatearen eta asebetetzearen azterketak

Kolektibo baten asebetetzea neurtzen dugu (ordaindutako pertsonala, borondatezko langileak, erabiltzaileak, emaileak...), gai batekin lotuta, hobekuntza arloak detektatzeko eta zerbitzuaren jardura bideratuko duten proposamenak ezartzeko.

Ikerketa sozialeko enpresa

Espainiako Ekintza Sozialaren Hirugarren Sektorerari buruzko urtekaria

ERRONKA

Estatu mailan proiektuaren landa-lana egitea, EAEko Hirugarren Sektorerako erakundeei inkestak eginez denbora-tarte batez eta arrazoizko kostuarekin.

IRTENBIDEA

EAEko Hirugarren Sektorerako erakundeen inkestak egiteko lana gure gain hartu dugu, bezeroaren koordinazioarekin. Bezeroak informazioa biltzeko tresnak jarri ditu gure esku.

Ezintasunaren eremuko elkarteak

Elkarte bateko zentroetan arreta jasotzen duten pertsonen erakunde mailako tutore eta familien asebetetzea aztertzea.

ERRONKA

Epe luzean zentroetan jasotako arretari lotuta erabiltzaileen erakunde mailako tutoreek eta familiek duten asebetetze maila ezagutzea, hobekuntza arloak eta beharrak detektatzeko eta ondorengo ebaluazio batean egindako doiketen eragina baloratzeko.

IRTENBIDEA

Bi urtez behin familiei eta arreta jasotako pertsonen erakunde mailako tutoreei inkesta egin diegu eta datuak aztertu ditugu. Horrekin, egiteke dauden arloak eta ebatzitakoak identifikatu eta asebetetzearen bilakaeraren gaineko informazioa eman diegu bezeroari. Bezeroak erakunde mailako tutoreen eta familien protagonismoa handiagotu du eta kudeaketa-planak behar bezala egokitu ahal izan ditu.

3. Programen ebaluazioa

Programa batek (emaitzek) helburu-kolektiboan duen eraginaren maila neurtzen dugu, baita horren eboluzioa eta azterketa prospektiboa ere, betiere, esku-hartzeko eta prebentzioko prozesuak hobetzeko oinarriak ezartzeko asmoz.

Udalerrri bateko droga-mendekotasunaren prebentzio-zerbitzua

"Tabakoari zero" programaren emaitzak ebaluatzeko azterketa.

ERRONKA

Udalerrriko DBHko ikasleekin Droga-mendekotasunaren prebentzio-zerbitzuak egindako prebentzio-programaren eraginaren maila neurtzea.



IRTENBIDEA

Luzetarako azterketa jarri genuen martxan (3 urte), ia esperimental den eredu baten araberako ebaluazioa egiteko. Bertan, azterketaren helburu diren taldearen datuak (programa aplikatu zaien ikasleak) kontroleko beste talde baten datuekin (programarik bete ez duten ikasleak) alderatu dira. Programak emaitza positiborik lortzen ez zuen arloak identifikatzea lortu genuen eta, horrez gain, ikasleen artean tabakoari eta kontsumoari buruzko jarrera batzuk azaltzeko gehien eragiten duten faktoreak identifikatu ahal izan genituen.

4. Merkatu-azterketak

Populazioaren sektore baterako ekipamendu edo zerbitzu jakin baten bideragarritasuna aztertu dugu eremu geografiko jakin batean, haren beharra aztertzeko. Eragina duten joerak identifikatu ditugu, hartzaileen beharrak ebaluatu ditugu, proiektuak garatzen dituzten edo antzeko zerbitzuak ematen dituzten erakundeak aztertu ditugu eta abar.

Irabazi-asmorik gabeko erakundea

Bilbo Handiko eskualdean etxez etxeko laguntza-zerbitzuei edo laguntza-zerbitzuei buruzko merkatu-azterketa.

ERRONKA

Egungo etxez etxeko laguntza-zerbitzuen eta laguntza-zerbitzuen eskaerak eta beharrak asetzeko sustatu beharreko ekintzak identifikatzea, baita etorkizuneko erronkei erantzuteko ere.

IRTENBIDEA

Azterketarekin inguruneko esperientziak elementu berritzaileekin detektatzea eta deskribatzea lortu dugu, eskaintzaren eta lehiaren azterketa egin dugu eta adinekoei eta aniztasun funtzionaleko pertsonei zuzendutako etxez etxeko laguntza-zerbitzuen eta laguntza-zerbitzuen eskaerak aztertu ditugu. Prozesuak, gainera, hainbat aliantza posibleen informazioa eman zion bezeroari eta zerbitzu horiek emateko esku-hartzen duten eragileen arteko lankidetzaren esparru berriak sortu ziren.

5. Baliabideen mapa

Baliabideen eskaintza jakin baterako (hartzaileen, eragin-eremuaren, eskaintzaren erakunde arduradunen eta abarren arabera) hurbilketa egiten dugu, informazio zehaztua, sailkatua, eta oro har, baliabideen kokapena biltzen duen informazioa lortzeko asmoz. Oso erabilgarria da hutsuneak identifikatzeko eta jarduera-programa jakinak egitea motibatuzeko.

Administrazio publikoa

EAEko oporraldietako aisialdiko eta denbora libreko baliabideen mapa

ERRONKA

Aisialdiko baliabideen mapa bat egitea, arlo horretan bizitza pertsonala, familiartekoa eta lanekoa bateratzea ahalbidetuko duen jarduera-programa bat bideratzeko.

IRTENBIDEA

Lehen mailako (galdetegi) eta bigarren mailako (Internet) iturrien bidez sistematizatutako informazio-bilketa bat egin dugu, eta horrekin eskaintzaren mapa bat egin dugu. Bertan bildu ditugu gaur egun dauden baliabideen bereizketa eta sailkapena. Mapan informazio kritikoa eskaintzen da; horrek plangintza ordenatua egiteko aukera ematen du eskaintza batzuen eta besteen arteko hutsune edo gainjartzeak saihesteko.

6. Errealitatearen diagnostikoak eta beharrak detektatzea

Lurralde-esparru eta denbora-tarte orokor batean edo arlo jakin baten inguruan kolektibo jakin baten, erakunde jakin baten edo sektore jakin baten egoera deskribatzen dugu, Geroago jarduera-plan bat egiteko orientabide gisa balio dezake, edo erakundeen jarduera berrantolatzeke prozesuei edukia eman diezaieke. Erantzuteke dauden gaiak ezagutzen hasteko aukera ematen duen neurrian, egungo beharrei erantzunak egokitzeke modu onena zehazteko aukera ematen du.

Adinekoen Udal Saila

Udalerriko 80 urteko edo gehiagoko pertsonen beharrei eta egoerari buruzko azterketa.

ERRONKA

Hauskortasun-egoerarekin lotuta, herriko laurogei urteko pertsonen egoera orokorra zehatz ezagutzea.

IRTENBIDEA

Galdetegi bat antolatu dugu bi fasetan (kuantitatiboa eta kualitatiboa), azterketaren helburu diren herritarrek kuantifikatu ahal izan ditugu, haien egoera deskribatu eta mendekotasun-egoerak eta laguntza-beharrak identifikatu. Bezeroak arrisku-egoerei buruzko informazio eguneratua lortu du; beraz, udaleko jarduera-plana ezarri ahal izan du herritar horien beharren arabera.

7. Interes orokorreko azterketa sozialak

Errealitate sozial jakin batean eragiten duten gertakariak deskribatu, aztertu eta interpretatzen ditugu. Azterketaren helburua arazo sozial bat izaten da beti, garaiko jakin-min edo interesen ondoriozkoa. Interesgarria izaten da haren erabilgarritasun praktiko edo teorikoagatik, presazkotasunagatik, eragiten dien pertsona kopuruagatik... Zalantzak argitzeko errealitate jakinari buruz sakontzeko bideratzen da edo puntu ezezagunen bat argitzeko, beraz, informazio kritikoa ematen du, bereziki garrantzitsua gaur egungo gizartean, etengabe aldatzen ari baita.

Enkarguzko ikerketa – Administrazio publikoa

Bizkaiko borondatezko lankidetzari buruzko azterketa

ERRONKA

Bizkaiko borondatezko langileen errealitateari buruzko informazioa biltzea. Borondatezko langile gisa laguntzen duen herritarrak bereiztea eta gainerako herritarrek borondatezko langile izateko duten jarreraz ohartzea.



IRTENBIDEA

Telefono bidezko galdetegi masiboaren bidez nahikoa informazio lortu dugu helburu diren publiko garrantzitsuenak identifikatzeko eta borondatezko lankidetzaren irudia kudeatzean eta bertara pertsona berriak erakartzean aldagai espezifiko garrantzitsuenak identifikatzeko.

Ikerketa propioa – Administrazio publikoa

EAEko bakarrik dauden emakumeen bazterketa sozialaren prozesuak. 2004

ERRONKA

Emakume alargun, bereizi, dibortziatu eta solteren kolektiboaren errealitatean sakontzea eta jasaten dituzten bazterketa-prozesu espezifikoak aztertzea.



IRTENBIDEA

Teknika kuantitatiboak eta kualitatiboak konbinatu ditugu eta bigarren mailako iturrietan eta inplikaturako eragileei zuzeneko kontsulta egin diegu. Azterketan informazio zabala jaso dugu eta kolektiboak duen bazterketa-arriskuaren errealitatea ikusten lagundu du. Era berean, neurri handiagoan *txirotze-prozesuan* eragiten duten faktoreak identifikatu ditugu, baita bazterketatik ateratzeko dituzten zailtasunak ere.